

**KOLEKTOREEN ETA HOBI SEPTIKOEN GARBIKETAKO
HONDAKIN-UREN ZATI LIKIDOA ETA SOLIDOA TRATATZEKO
ZERBITZUAREN IZAERA PUBLIKO ZERGAZKOA EZ DEN ONDARE-
PRESTAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ONESPENA**

AZALPEN OHARRA

**Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.
Eguneratutako ordenantza arautzaile osoa jasotzen da bertan.**

1 art. Foru araua. Ezarpen eta kudeaketa eremua

Kolektoreen eta hobi septikoen garbiketako hondakin-uren zati likidoa eta solidoa tratatzeko zerbitzua emateagatik kontraprestazio ekonomikoa Ordenantza honek arautu eta exijitzen du, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren (aurrerantzean FA 11/1989) 20.4 artikuluan xedatzen denaren arabera, 2019ko zerga-neurri zehatz batzuk onartzen dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauaren idazketan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-nagusiaren martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren Lehen Xedapen Gehigarrian esaten denarekin, alegia, Ordenantza honek arautzen duen izaera publiko zergazkoa ez den ondare-prestazioak arautzen dituen.

Zentzu horretan, 11/1989 Foru Arauaren 20 artikuluko 4 atalak zera dio:

“Artikulu honetako 3. apartatuan aipatutako zerbitzu publikoen prestazioagatik era her tsagarrian ezarri eta jasotzen diren kontraprestazio ekonomikoak izaera publiko ez-tributarioko ondare prestaziotzat hartuko dira Konstituzioaren 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, prestazio horren kudeaketa zuzenekoa izan –pertsonifikazio pribatu bidez– zein zeharkakoa izan.

Zehazki, halakotzat hartuko dira emakida erregimenean egiten diren obren ustiapenagatik edo zerbitzuen prestazioagatik exijigarriak direnak, ekonomia mistoko sozietateen, entitate publiko enpresarialen, kapital publiko soileko sozietateen eta zuzenbide pribatuko bestelako formulen bitartez egiten direnean”.

Ordenantza honen ezarpen eremua Añarbeko Uren Mankomunitatearen eremua da, eta eremu horretan kokaturik dauden kolektoreen eta hobi septikoen garbiketako hondakin-uren zati likidoak eta solidoak tratatu nahi dituzten erabiltzaileei ematen die zerbitzua.

Tratamendu-edukieran soberakinak dauden kasuan aipaturiko eremutik kanpoko hondakinen erabiltzaileei emango zaie zerbitzua, aurretik akordatuko den zenbatekoa ordaindu ondoren.

Añarbeko Uren Mankomunitateak (aurrerantzean Mankomunitatea) bere sozietate publiko kudeatzaile Aguas del Aañarbe-Añarbeko Urak, SAren bidez kudeatu, likidatu eta bilduko ditu aipaturiko prestazioak. Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusten denaren arabera.

2. art. Xedea eta Izaera

Ordenantza honen xedea da, ondoren adierazten diren zerbitzuak emateagatik sortzen diren kontraprestazio ekonomikoak arautzea:

a) dauden kolektoreen eta hobi septikoen garbiketako hondakin-uren zati likidoaren saneamendua, jatorria Mankomunitatearen esparruan dutena, eta erabiltzaileek Loiolako araztegira garraiatuak izan direnak. Zerbitzuak lan hauek jasotzen ditu: hondakina onargarria dela egiaztatzea -ezaugarriak eta bolumenak kontuan hartuz-, hondakinak jaso, deskargatu eta araztegian tratatzea; haiek garraiatu eta toki baimendu batean isurtzea.

a) dauden kolektoreen eta hobi septikoen garbiketako hondakin-uren zati solidoaren saneamendua, jatorria Mankomunitatearen esparruan dutena, eta erabiltzaileek Loiolako araztegira garraiatuak izan direnak. Zerbitzuak lan hauek jasotzen ditu: hondakina onargarria dela egiaztatzea -ezaugarriak eta bolumenak kontuan hartuz-, hondakinak jaso, deskargatu eta araztegian tratatzea; haiek garraiatu eta toki baimendu batean isurtzea.

3 art. Sortzapena

Kontraprestazioak sortzen dira Ordenantza honen 2. artikuluan deskribatzen diren zerbitzuak ematen diren unean.

4 art. Ordaintzeko obligazioa

Ordaintzeko obligazioa jaiotzen da Ordenantza honen 2. artikuluan deskribatzen diren zerbitzuak ematen diren unean.

5 art. Ordaintzera derrigortuak

Ordaintzera derrigortuak egongo dira, kolektore edo hobi septikoen garbiketako uren zati likidoak edo solidoak euren baliabideen bidez Loiolako araztegira garraiatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak. Ildo honetan zera ulertzen da, urak araztegira eramaten dituen garraio-jardueraren titularrak egiten duela entrega, ur horiek sortu zituzten pertsona fisiko edo juridikoak kontuan izan gabe.

Haatik, garraio-enpresa batek zati likidoak edo solidoak araztegira eramaten dituenean eta horiek saneamenduko sare publikoak garbitzean sortuak direnean, haien ordainketa sare horien titular den udalari dagokio. Ondorio horrekin, garraioaren titularrak egiaztatu beharko du zati solidoak eta likidoak Udalak entregatu dizkiola eta, bestalde, Udalak egiaztatu beharko du zati solido eta likido guzti horiek soilik sare publikoen garbiketan sortutakoak direla.

6 art. Kuotaren oinarria, tarifak eta kuotak

Ordenantza honen 2. Artikuluan definitzen diren zerbitzuak emateagatiko kuotak bi zati izango dituzte, bat aldakorra eta bestea finkoa, ondoren garatzen denaren arabera:

a) Ordenantza honen 2. Artikuluko a) atalean deskribatzen den kontraprestazioa honela kalkulatu da:

Zati finkoaren helburua da izaera finkoa duten kostuak finantzatzea eta hondakin-uren jatorriaren arabera finkatzen da. Ildo honetan, gutxienez egin behar diren derrigorrezko azterketak hauek dira: pH, eroaletasuna, tenperatura, esekiduran dauden solido totalak eta oxigenoaren demanda kimikoa.

Zati finkoa kalkulatu da kuotaren oinarriari (Loiolako araztegira iritsi den ur bolumenari dagokiona, Añarbeko teknikariek neurtua instalazioan bertan) dagokion tarifa aldakorra aplikatuz.

Ondorioz, erabiltzaileak ordainduko duen kuota bi zati horien batura izango da, hona hemen adierazpena:

$$\text{Kuotaren zati likidoa} = T_{FL} + T_{VL} \times V$$

Non,

T_{FL}	Emandako zerbitzuaren tarifaren zati finkoa da, €tan adierazia. Zati finko hau Mankomunitateak finkatuko du eta Ordenantza honen 1. Eranskineko 1.a) atalean ageri da.
T_{VL}	Tarifaren zati aldakorra da, €/m ³ tan adierazia, Loiolako HUAn isuritako bolumenari (m ³ etan) aplikatuko zaio
V	Loiolako HUAn jasotako bolumena da, m ³ tan adierazia, eta baskulan pisatuz kalkulatu dena, pisu espezifiko 1 t / m ³ dela suposatzen delarik.

Goiko formulako tarifaren zati aldakorra (T_{VL}) ondorengo adierazpenaren bidez kalkulatu da:

$$T_{VL} = \%50 \times T_{(Spd+v)} + CCC \times T_{DN}$$

Non,

%50 x $T_{(Spd+v)}$ Hartze, deskarga, garraiatze eta Loiolako HUako hondakin-urak ingurune hidrikora isurtze zerbitzua emateari dagokion tarifa da, € eta € zentimo/m³-tan adierazia. $T_{(Spd+v)}$ zati aldakorraren balioa Añarbeko Uren Mankomunitateak finkatzen duena izango da eta Ordenantza honen 1 Eranskineko 1.b) atalean ageri da.

Hondakin-uren m³ baten hartze, deskarga, garraiatze eta ingurune-hidrikora isurtzearen kostu aldakorrarekin bat dator. Añarbeko Mankomunitatearen Batzarrak urtero bere "Etxekoa ez diren erabiltzaileei saneamendu-zerbitzua emateagatiko izaera publiko zergazkoa ez den ondare-prestazioa arautzen duen ordenantza"n bere tarifak onesten dituen finkatzen duen saneamenduagatik eta isurketagatik tarifaren zerga-tarifaren %50a izango da zenbatekoa. Portzentaje hau %50ekoa, finkatzen da, zeren Ordenantza honetako subjektu

pasiboek aipaturiko zerbitzua erabiltzen dute soilik Loiolako HUAtik itsasora bitartean.

TV_{DN} Loiolako HUako hondakin-uren arazketa “normal” baten zerbitzua emateari dagokion tarifa da, € edo € zentimo/m³-tan adierazia. **TV_{DN}** zati aldakorren balioa Añarbeko Uren Mankomunitateak finkatzen duena izango da eta Ordenantza honen 1 Eranskineko 1.b) atalean ageri da.

Hondakin-ur “normal” baten m³ bat araztearen kostu aldakorrekin bat dator. Ur “normala” zera da etxeetako ura edo etxeetako urari asimilagarria dena, kontzentrazio hauek dituen: SST 220 mg/l, DBO₅ 200 mg/l eta DQO 400 mg/l.

CCC karga kutsatzailearen koefizientea da (dimentsiorik gabea). Ordenantza honetako subjektu pasiboentzako CCC kalkulatu da, ondorengo adierazpenari jarraituz:

$$CCC = 0,65 \times \frac{[SST] - 50}{170} + 0,35 \times \frac{[DQO] - 120}{280} + K$$

Non,

[SST] isurketan esekita dauden solidoen kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia
[DQO] oxigenoaren demanda kimikoaren kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia
K isurketak honako substantziarik duenean ezarriko den koefizientea da:

Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)
 Fosforo totala (P)
 Olio eta koipeak (AG)
 Kloruroak (Cl⁻)
 Sulfatoak (SO₄⁼)
 Kobre (Cu)
 Kromo totala (Cr)
 Merkurio (Hg)
 Zink (Zn)
 Kadmio (Cd)
 Fenolak

K koefizienteak ondorengo baloreak hartuko ditu:

Parametroa	Gehienez onartzen denarekiko isurketaren kontzentrazioaren portzentajea parametro bakoitzarentzat	K
Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK) Fosforo totala (P) Olio eta koipeak (AG) Kloruroak (Cl ⁻) Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	< % 80	0,00
	% 80tik 85ra	0,05
	% 85etik 90era	0,10
	% 90etik 95era	0,15
	% 95etik 100era	0,20
Kobre (Cu) Kromo total (Cr) Merkurio (Hg) Zink (Zn) Kadmio (Cd)	< % 50	0,00
	% 50etik 60ra	0,10
	60etik 70era	0,20
	70etik 80ra	0,30

Fenolak	80etik 90era	0,40
	90etik 100era	0,50

Substantzia horietako bat baino gehiago isuriz gero, K faktorea K_1 , K_2 , K_3 , ... horien batuketa izango da, bakoitzarentzat banaka kalkulaturakoa.

Onartzen diren balore maximoak, parametro bakoitzarentzat, honako hauek dira:

Parametroa	Kontzentrazioa (mg/l)
Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)	100
Fosforo totala (P)	15
Olio eta koipeak (AG)	100
Kloruroak (Cl ⁻)	1.500
Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	1.000
Kobre (Cu)	1
Kromo total (Cr)	4
Merkurio (Hg)	0,05
Zink (Zn)	4
Kadmio (Cd)	0,2
Fenolak	2

Isurketa-Baimen batek parametro bati ezarritako balore-muga gainditzen duen salbuespen kasuan, K faktorea Isurketa-Baimenean ezarriko da, kasu horretan CCC ezingo delarik 1etik behera egon.

[Hondakin ur "normala"k, edo etxeko izaera edo etxekoaren parekagarria dutenak (kontzentrazio hauek dituenak: 220 mg/l SST, 200 mg/l DBO₅ eta 400 mg/l DQO) CCC = 1 azaltzen dute. Aipaturiko kontzentrazio baxuagoak azaltzen dituzten hondakin urek CCC < 1 dute, ondorioz, etxeko tarifa baino txikiagoa den tarifa ezarriko zaie. HUAtik irteten den emariaren kontzentrazio berdina duten urek (50 mg/l SST eta 120 mg/l DQO) CCC = 0 azaltzen dute (CCCak ez ditu balore negatiboak izango), kasu horretan ezarriko den tarifa, hondakin uren emariak HUAREN barrutik ponpatu eta garraiatzearen kostuaren baliokide izango da].

b) Ordenantza honen 2. artikuluko b) atalean deskribatzen den kontraprestazioaren kuota honela kalkulatu da:

Zati finkoa, izaera finkoa duten kostuen finantzaketara dago zuzendua.

Zati aldakorra honela lortzen da: zerga-oinarriari, hots Loiolako HUAn isuritako hondakinen kantidadarekin bat datorrenari (instalazioan bertan tonatan neurtzen dena Mankomunitateko zerbitzu teknikoengatik), dagokion tarifa aldakorra aplikatuz.

Ondorioz, erabiltzaileak ordaindu beharreko kuota bi zatiren batura da, ondorengo adierazpenari erantzunez:

$$\text{Zati solidoaren kuota} = T_{FS} + T_{VS} \times Q$$

Non,

- T_{FS}** Emandako zerbitzuaren tarifaren zati finkoa da, €tan adierazia. Zati finko hau Mankomunitateak finkatuko du eta Ordenantza honen 1. Eranskineko 2.a) atalean ageri da.
- T_{vs}** Tarifaren zati aldakorra da, €/t-tan adierazia, Loiolako HUAn isuritako kantitateari (tonatan neurtua) aplikatuko zaio. Zati aldakorra (T_{vs}) Añarbeko Uren Mankomunitateak finkatuko du eta Ordenantza honen 1. Eranskineko 2.b) atalean ageri da.
- Q** Loiolako HUAn jaso den kantitatea, tonatan adierazia eta baskulan pisatuz kalkulatua.

7 Art. Kuotak ordaintzeko era

Ordenantza honen xede diren kontraprestazioak AUSAri ordainduko zaizkio, eman den zerbitzu bakoitzari dagokion faktura prestatu eta igorri ondoren.

AUSAk igorritako fakturaren ordainketa hilabete batean egingo da, igortzen den datatik aurrera.

8 Art. Orokorrean ezarriko diren arauak

Kontraprestazioei aplikagarri zaizkie, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan aurreikusten diren xedapenak, Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen xedapenak eta toki araubideari buruzko gainontzeko legeria.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean sartzen denean indargabe geratuko da lehengo “Kolektoreen edo hobi septikoen garbiketako hondakin-uren zati likido eta solidoak tratatzeko zerbitzua emateagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza”.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta bere 1. Eranskina, 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta ondorioak sortzen, edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean, hori beranduago egiten denean. Ordenantzak eta bere 1. eranskinak indarrean jarraituko dute, haien indargabetzea edo aldaketa erabakitzen ez den bitartean.

1 ERANSKINA

**Kolektore edo hobi septikoen garbiketako hondakin-uren
Zati likidoa eta solidoa tratatzeko zerbitzuaren izaera publiko
zergazkoa ez den ondare-prestazioa arautzen duen
ordenantzan aurreikusten diren tarifen baloreak
(BEZa sartu gabe)**

1. Hondakinaren zati likidoaren saneamendu-zerbitzua

a) Zati likidoren saneamendu zerbitzuaren tarifa finkoa T_{FL}

Honela finkatzen da balorea: **117,57 €/zerbitzuko**

b) Zati likidoaren saneamendu zerbitzuaren tarifa aldagarria T_{VL}

Tarifaren zati aldakorren osagaiak honela finkatzen dira:

$$T_{(Spd + v)} = 17,8001 \text{ € zent./m}^3$$

$$TV_{DN} = 13,7886 \text{ € zent./m}^3$$

2. Hondakinaren zati solidoen tratamendu eta azken zerbitzua

a) Zati solidoaren tratamendu eta azken erabileraren zerbitzuaren tarifa finkoa T_{FS}

Honela finkatzen da balorea: **118,73 €/zerbitzuko**

b) Zati solidoaren tratamendu eta azken erabileraren zerbitzuaren tarifa aldagarria T_{VS}

Loiolako HUAn jasotzen den tona bakoitzaren balorea **38,75 €** da.
